



## **GARAPENERAKO LANKIDETZA KONTSEILUAREN BILKURA**

**Lekua eta data:** Leioa, 2011ko abenduaren 2a

**Hasiera ordua:** 12:00

**Amaiera ordua:** 14:00

**Presidentea:**

Iratxe Amiano (Gizarte Erantzukizuneko zuzendaria)

**Idazkaria:**

Estibaliz Martínez (Garapenerako Lankidetzaren Bulegoko teknikaria)

**Bertaratutakoak:**

**Kontseiluko kideak**

Luis Guridi

Eneko Calle

Joseba Zuazo Olozaga

María José Maeztu

Joseba Sainz de Murieta Mangado

**Imanol Zubero**

Khalil Ould Said

**Kontseiluko kide ez direnak**

Unai Etxeberria Villate

Marta Macho

**Bertaratu ez direnak:**

Amaia Maseda

Koldo Unceta Satrústegi

Anaut Patterson Mendiola

**Maria José Mijangos**

**Aztergaien zerrenda:**

1. Aurreko aktak onartzea.
2. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana gauzatzeko aurrerapausoak.
3. Galderak eta eskaerak.



## Akta

Gizarte Erantzukizuneko zuzendari Iratxe Amianok eman dio hasiera bilkurari.

### *Gai zerrendako lehenengo puntua: aurreko aktak onartzea.*

Lankidetzaren Kontseiluaren **2011ko urriaren 28ko** bilkurari dagokion akta onartu da.

### *Gai zerrendako bigarren puntua: UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren arloko Plana gauzatzeko aurrerapausoak.*

Iratxe Amianok **IV.3 puntuari** dagokion testua aurkeztu du (Jarduketa ildo estrategikoak), Lankidetzaren Bulegoak Lankidetzaren Kontseiluko kideei bidalitakoa. Dokumentuak hainbat pertsonak idatzitako testuak barne hartzen ditu:

- a) Erakundearen indartzea (Iratxe Amiano)
- b) Prestakuntza eta ikerketa (Luis Guridi)
- c) Garapenerako hedapena, sentsibilizazioa eta hezkuntza (Eneko Calle)
- d) Babes eta laguntza teknikoa (Unai Etxeberria)

Iratxek adierazi du bere iritziz azken idatzia osatzen duen testuak ez duela ez koherentziarik ez kohesiorik. Beraz, testua errazago uler dadin, dokumentazioaren egitura aldatu egin behar da. Lan hori egiteko, gaian espezializatutako kanpoko enpresa bat kontratatzea proposatu du.

Luis Guridik bere puntuari dagozkion azalpenak eman ditu (Prestakuntza eta ikerketa), eta gainerako puntuak berak proposatutako eskemara egokitzea proposatu du. Eskema hori UPV/EHUren Berdintasunerako Planari dagokion testua egiteko erabilitako bera da, eta egitura hau du: jarduketa ildoak (puntu bakoitzeko 5, gutxi gorabehera) + ekintza zehatzak (ildo bakoitzeko bi gutxienez). Egituraz gain, edukia ere zuzendu behar da, jarduketa ildo batzuk hainbat puntutan errepikatzen baitira.

Unai Etxeberriak “Babes eta laguntza teknikoa” puntua aurkeztu du. Puntu hori osatzeko, irakasle eta ikertzaileei eta AZPko langileei UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren arloko Planari buruz egindako inkestan lortutako emaitzak hartu ditu oinarritzat. Horrez gain, adierazi du zalantzan jartzen duela “Garapenerako unibertsitate sareen sustapena eta parte-hartzea” ildoak puntu honetan, eta ez “Erakundearen indartzea” puntuan, sartzaren egokitasuna. Puntu honi dagokionez, Luisek UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoak irakasle eta ikertzaileei hainbat deialditara lankidetzaren proiektuak aurkezteko ematen dien laguntzaren garrantzia azpimarratu du. Ildo horretatik, Iratxek adierazi du AZPko langileei lankidetzaren proiektuetan parte hartzeko laguntza emateko jarduketa ildo baten falta sumatzen duela. AZPko langileentzat, beren ordutegiaren malgutasun urria dela eta, oso zaila da proiektu horietan parte hartzea. Maria Jose Maeztuk jakinarazi du AZPko langileentzako prestakuntza zerbitzu bat badagoela, eta bertan garapenerako lankidetzaren arloko prestakuntza ikastaro bat sartzeko proposa dezaketela. Horretarako, beharrezkoa litzateke ikastaroak baliozkotzen dituztenekin harremanetan jartzea.

Imanol Zuberok gehitu du bere ustez testuaren edukian jarduketa ildo bat falta dela.



Ildo horiek Jatorri arrazoiengatik ezaugarri bereziak dituzten ikasleen arazoei erantzuna emango lieke (hizkuntza arazoak, dokumentazio falta, gizarte eta ekonomia babesik eza, etab.). Ikasle horiek laguntza pedagogiko berezia behar dute. Iratxe Amianok adierazi du UPV/EHUren egiturak ikasle horiei laguntza eman diezaieketen zerbitzuak barne hartzen dituela (IAZ, GIB, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa).

Hausnarketa horiek egin ondoren, IV.3 puntuari (Jarduketa ildo estrategikoak) dagozkion erabaki hauek hartu dituzte:

- Puntu bakoitza dokumentu batean aurkeztea.
- “a) Erakundearen indartzea” eta “b) Prestakuntza eta ikerketa” puntuak bere horretan uztea.
- Adostutako egitura (jarduketa ildoak + ekintza zehatzak) ematea “c) Garapenerako hedapena, sentsibilizazioa eta hezkuntza” eta “d) Babes eta laguntza teknikoa” puntuei.
- “Garapenerako unibertsitate sareen sustapena eta parte-hartzea” ildoak “a) Erakundearen indartzea” puntuan sartzea.
- “d) Babes eta laguntza teknikoa” puntuan ildo hau sartzea: AZPko langileen eta irakasle eta ikertzaileen garapenerako lankidetzaren arloko prestakuntza indartzea; baita ekintza hauek ere: batetik, barneko prestakuntza ikastaroak sustatzea eta, bestetik, AZPko langileen parte-hartzea sustatzea, prestakuntza emaila gisa.
- “Berrikuntza eta sormen metodologikoaren sustapena” ildoak “c) Garapenerako hedapena, sentsibilizazioa eta hezkuntza” puntutik kentzea, eta “b) Prestakuntza eta ikerketa” atalean sartzea.
- “Jatorri arrazoiengatik behar bereziak dituzten ikasleentzako arreta” puntua gehitzea.
- Aldaketa horiek egin ondoren, dokumentuen zirriborroa bidaliko zaie Lankidetzaren Bulegotik Kontseiluko kideei.

**IV. atalari** dagokionez (Garapenerako Lankidetzaren UPV/EHU), Kontseiluak adierazi du unibertsitateko kide guztientzako lan jardunaldi bat egin behar dela, atala osatzen duten puntu desberdinei buruzko hausnarketa egiteko:

- Garapenerako lankidetzaren arloko UPV/EHUren lehentasun sektorialak
- Garapenerako lankidetzaren arloko lehentasun horizontalak
- Lehentasunezko eremu geografikoak
- Lehentasunezko taldeak

Ildo horretatik, lan jardunaldi hori beharrezkoa den edo ez eztabaidatu aurretik, Luis Guridik proposatu du puntu hauek erakundearen (AECID eta Eusko Jaurlaritza) eta beste unibertsitate batzuen plan estrategikoetan nola lantzen dituzten aztertuko duen aurretiko lan bat egitea.

Iratxe Amianoren ustez, beste aukera bat puntu horiek UPV/EHUren Garapenerako



Lankidetzaren Bulegoaren plan operatiboan garatzea eta gauzatzen ari garen Garapenerako Lankidetzaren arloko Planean plan operatiboa aipatzea da.

Puntu honi dagokionez, Kontseiluko kide bakoitzak bere hausnarketa eta proposamena egin dezala erabaki dute. Hurrengo bilkuran azalduko dituzte ateratako ondorioak. Horrez gain, garrantzitsua da hurrengo bilkurarako garapenerako lankidetzaren arloko jarduketa ildoen laburpen taula bat eginda edukitzea, UPV/EHUren 2012-2016ko Plan Estrategikoan sartu ahal izateko, Gizarte Konpromisorako Ildoaren barnean.

Hurrengo bilkura 2012ko **urtarrilaren 23an** egitea adostu dute.

**Aztergai gehiagorik egon ez denez, bilkura amaitutzat eman dute.**